

# SARIAREN ARAUAK



**“Café Bar Bilbao”**

**Teatro Laburreko Saria**  
**Premio Teatro Breve**

2016

# "Kafe Bar Bilbao"

Teatro Laburreko gidoien lehiaketa

[Café Bar Bilbao](#)

KAFE BAR BILBAO-k,  
TARTEAN teatroak lagunduta,  
"Kafe Bar Bilbao"  
Teatro Laburreko Gidoien Saria  
lehiaketaren 14. ediziora dei egiten du.  
Hona hemen lehiaketaren arauak:

1.- Kafe-teatorako edo **formato txikiko antzerki-lanetarako gidoiak** aurkeztuko dira. "Formato txikia"-k zera esan nahi du, lanaren beharrianak (teknikoak edo artistikoak) txikiak direla eta bere ekoizpena eta banaketa "erreza" izan daitekela. Lanaren luzera 30 minututako antzezlan bati dagokiona izango da, gutxi gorabegera.

2.- Modalitate bi egongo dira: **euskarazkoa eta gaztelaniazkoa**. Gidoi modalitate bakarrera aurkeztu daiteke obra bakoitza. Erderazko lanen egileek Euskal Erkidego edo Nafarroakoak izan beharko dute.

3.- Saria **1.000 €** izango da modalitate bietan. Antzezlanak Kafe-aren webean publikatuko dira bai eta liburu batean ere, beste urtetako lan sarituekin batera. TARTEAN teatroak lan hauen irakurketa dramatizatua antolatuko du. Euskarazko antzezlanaren ekoizpena bultzatu eta lagunduko da, Pabeilo 6ko Antzerki Laburraren Festibalean aurkeztua izan dadin.

4.- **Gidoiak jatorrizkoak**, antzeztu gabeak, argitaratu gabeak eta aurretik beste lehiaketaren batean saritu gabeak izango dira. Beste lanen batetik egindako itzulpenak edo moldaketak ez dira jatorrizkotzat joko.

5.- Gidoiak **emailez** bidaliko dira Kafe Bar Bilbao-ra:

[info@bilbao-cafebar.com](mailto:info@bilbao-cafebar.com)

**2016ko Abenduaren 31 (barne) bitartean.**

Bi fitxategi bidaliko dira mezu berean izen hauekin: X-testua y X-datuak (X = antzezlanaren izenburua)

X-testua fitxategian Gidoia joango da, egilea identifikatu barik.

X-datuak fitxategian egilearen Datuak: Izen-abizenak, bizilekua, telefono zenbakia...

Horrez gain **gutun** bat bidaliko da Kafe Bar Bilbao-ra

Kafe Bar Bilbao - Plaza Berria, 6 - 48005 Bilbao

Eta bertan **NANaren fotokopia** bat eta **Zinpeko aitortpena**, sinatuta, zera adierazten: gidoia jatorrizkoa eta argitaratu gabea dela, ez dela beste lan batetik moldatua edo antzezturiko lan batena, ez dela izan beste lehiaketaren batean saritua eta ez dela itzulpena.

6.- Epaimahaia kontuan hartuko du lanaren **kalitatea** (teatrala, literaturarena...) **eta antzezgarritasuna**; hau da, lehenengo arauan apaitutako formato txikiko antzerki-lanetarako gidoia izatea.

7.- **Epaimahaia ahalmen guztia** edukiko du sariak emateko edo eman barik uzteko, hala balegokio. Arauok interpretatu ahal izango ditu beharrezkoa balitz, baita epaimahaikoen jardun-arauak finkatu ere. Epaimahaikoen erabakia apelaezina da.

8.- Saritutako lanen **eskubideak egilearenak** izango dira betiere, baina Kafe Bar Bilbaok baimena izango du lana bere webean publikatzeko edo liburu batean argitaratzeko, bai eta irakurketa dramatizatu bat antolatzeko (TARTEAN teatroa).

9.- Edozelan ere, saritutako lanak argitaratu edo antzeztuko balira, Kafe Bibaok esku hartu barik, publizitaterako euskarri grafiko eta ikus-entzunezko guztietan **sari hau jaso duela aipatu beharko** da.

10.- Lehiaketa honetan parte hartzeak arauok osorik onartzen direla esan nahi du.

[Café Bar Bilbao](#)